



BILKURA EGUNKARIA

DIARIO DE SESIONES

XI. legegintzaldia / XI legislatura

N.º 15 zk.

2007ko martxoaren 3an egindako bilkura

VITORIA-GASTEIZ

AURKIBIDEA

- 5 or. *Hasiera eman zaio bilkurari.*
- 5 or. ***Galdera, elikagaien planifikazio estrategikoari buruz***
- Galdera Tellería Orriols jaunak aurkeztu du eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak erantzun dio
- 7 or. ***Galdera, Jaurlaritzaren goi-karguei buruz***
- Galdera Casanova Alonso jaunak aurkeztu du eta Jaurlaritzako lehendakariak erantzun dio.
- 11 or. ***Galdera, eratu berria den Eusko Jaurlaritzako goi-karguen kopuruari buruz***
- Galdera Zabala Artano andreak aurkeztu du eta Jaurlaritzako lehendakariak erantzun dio.
- 14 or. ***Galdera, Euskadin izandako turista atzerritarren kopuruari buruz***
- Galdera Corcuera Leunda andreak aurkeztu du eta Turismo, Merkataritza

Sesión celebrada el 3 marzo de 2017

VITORIA-GASTEIZ

ÍNDICE

- Pág. 5 *Se abre la sesión.*
- Pág. 5 ***Pregunta relativa a la planificación estratégica alimentaria***
- Presenta la pregunta el señor Tellería Orriols, que es respondido por la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras.
- Pág. 7 ***Pregunta relativa a los altos cargos del Gobierno***
- Presenta la pregunta el señor Casanova Alonso, que es respondido por el lehendakari del Gobierno.
- Pág. 11 ***Pregunta relativa al número de altos cargos del recién constituido Gobierno Vasco***
- Presenta la pregunta la señora Zabala Artano, que es respondida por el lehendakari del Gobierno.
- Pág. 14 ***Pregunta sobre el número de turistas extranjeros en Euskadi***
- Presenta la pregunta la señora Corcuera Leunda, que es respondida por el

	eta Kontsumoko sailburuak erantzun dio.		consejero de Turismo, Comercio y Consumo.
17 or.	<i>Galdera, legealdi honetarako legegintza-egutegiari buruz</i>	Pág. 17	<i>Pregunta sobre calendario legislativo para la presente legislatura</i>
	· Galdera Alonso Aranegui jaunak aurkeztu du eta Jaurlaritzako lehendakariak erantzun dio.		· Presenta la pregunta el señor Alonso Aranegui, que es respondido por el lehendakari del Gobierno.
21 or.	<i>Galdera, martxoaren 3ko biktimei erreparazioa eta aitortza eman beharri buruz</i>	Pág. 21	<i>Pregunta sobre la necesaria reparación y reconocimiento de las víctimas del 3 de marzo</i>
	· Galdera Larrion Ruiz de Gauna andreak aurkeztu du eta Jaurlaritzako lehendakariak erantzun dio.		· Presenta la pregunta la señora Larrion Ruiz de Gauna, que es respondida por el lehendakari del Gobierno.
24 or.	<i>Interpelazioa, Bilboko metroaren 4 eta 5. lineei buruz</i>	Pág. 24	<i>Interpelación relativa a las líneas 4 y 5 del metro de Bilbao</i>
	· Interpelazioa Llanos Gómez andreak aurkeztu du eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak erantzun dio.		· Presenta la interpelación la señora Llanos Gómez, que es respondida por la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras.
33 or.	<i>Interpelazioa, indarkeria matxistei buruzko lege bat eragile sozialen parte-hartze aktiboarekin formulatzeko prozesu bat sortze aldera hartutako konpromisoaren gainean</i>	Pág. 33	<i>Interpelación sobre el compromiso adquirido de crear un proceso para formular una ley sobre violencias machistas con la participación activa de agentes sociales</i>
	· Interpelazioa Arana Varas andreak aurkeztu du eta Jaurlaritzako lehendakariak erantzun dio.		· Presenta la interpelación la señora Arana Varas, que es respondida por el lehendakari del Gobierno.
43 or.	<i>Galdera, 2020. urterako Estatu espainolarekin nahi duen itunari buruz</i>	Pág. 43	<i>Pregunta sobre el pacto que desea alcanzar con el Estado español para el año 2020</i>
	· Galdera Iriarte Okiñena andreak aurkeztu du eta Jaurlaritzako lehendakariak erantzun dio.		· Presenta la pregunta la señora Iriarte Okiñena, que es respondida por el lehendakari del Gobierno.
46 or.	<i>Interpelazioa, EAEko pentsio baxuak osatzeko eta duintzeko Jaurlaritzak hartuko dituen neurriei buruz</i>	Pág. 46	<i>Interpelación relativa a las medidas que va a adoptar el Gobierno para complementar y dignificar las pensiones bajas de la CAV</i>
	· Interpelazioa Pinedo Bustamante andreak aurkeztu du eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak erantzun dio.		· Presenta la interpelación la señora Pinedo Bustamante, que es respondida por la consejera de Empleo y Políticas Sociales.
55 or.	<i>Galdera, gizarte-alarma eragiten duten kasu batzuen berri izan ondoren gizarte-laguntzen egungo erregulazioari eusteari buruz</i>	Pág. 55	<i>Pregunta sobre el mantenimiento de la actual regulación de las ayudas sociales tras el conocimiento de casos que generan alarma social</i>
	· Galdera Garrido Knörr andreak aurkeztu du eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak erantzun dio.		· Presenta la pregunta la señora Garrido Knörr, que es respondida por la consejera de Empleo y Políticas Sociales.



- 59 or. **Galdera, Gasteizko Udalak eta Ura-
ren Euskal Agentziak Gasteizko udal-
mugartean uholdeen kontrako defen-
tsa-obrak exekutatzeko sinatua duten
lankidetzarako esparru-akordioari
buruz**
- Galdera Becerra Carollo jaunak aurkeztu du eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak erantzun dio.
- Pág. 59 **Pregunta relativa al acuerdo marco
de colaboración entre la Agencia
Vasca del Agua URA y el Ayunta-
miento de Vitoria-Gasteiz para la
ejecución de obras de defensa contra
inundaciones en el término municipal
de Vitoria-Gasteiz**
- Presenta la pregunta el señor Becerra Carollo, que es respondido por el consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.
- 62 or. **Galdera, Uraren Euskal Agentziako
zuzendariaren jarraipenari buruz**
- Galdera López de Ocariz López de Munain andreak aurkeztu du eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak erantzun dio.
- Pág. 62 **Pregunta en relación con la continui-
dad del director de la Agencia Vasca
del Agua**
- Presenta la pregunta la señora López de Ocariz López de Munain, que es respondida por el consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.
- 65 or. **Interpelazioa, hezkuntzaren egoera
hobetzeko dituen egitasmoei buruz**
- Interpelazioa Ubera Aranzeta andreak aurkeztu du eta Hezkuntzako sailburuak erantzun dio.
- Pág. 65 **Interpelación relativa a sus proyectos
de mejora de la situación de la edu-
cación**
- Presenta la interpelación la señora Ubera Aranzeta, que es respondida por la consejera de Educación.
- 75 or. **Galdera, 2016an konfiskatutako on-
dasunen funtsei buruzko hitzarmena
formalizatzeko arazoei buruz**
- Galdera Barrio Baroja jaunak aurkeztu du eta Osasuneko sailburuak erantzun dio.
- Pág. 75 **Pregunta relativa a los problemas en
la formalización del convenio sobre
fondos de bienes decomisados en
2016**
- Presenta la pregunta el señor Barrio Baroja, que es respondido por el consejero de Salud.
- 78 or. **Galdera, Urdulizko Alfredo Espinosa
ospitale berria irekitzeko prozesuko
esternalizazio-planari buruz**
- Galdera Uria Serrano jaunak aurkeztu du eta Osasuneko sailburuak erantzun dio.
- Pág. 78 **Pregunta sobre el plan de externali-
zaciones en el proceso de apertura
del nuevo hospital de Urduliz-Alfredo
Espinosa**
- Presenta la pregunta el señor Uria Serrano, que es respondido por el consejero de Salud.
- 81 or. **Galdera, Euskotreneko komite irau-
nkorren greba-deialdiari buruz**
- Galdera Hernández Hidalgo jaunak aurkeztu du eta Lan eta Justiziako sailburuak erantzun dio.
- Pág. 81 **Pregunta relativa a la convocatoria
de huelga por parte del comité per-
manente de Euskotren**
- Presenta la pregunta el señor Hernández Hidalgo, que es respondido por la consejera de Trabajo y Justicia.
- 85 or. **Galdera, Madrilgo Gobernuak alde
bakarrez hartutako erabaki batek for-
mazioko ikertzaileen kolektiboaren
500 langileen lan baldintzetan eragin
duen atzerapenari buruz**
- Pág. 85 **Pregunta relativa al retroceso causa-
do por un acuerdo unilateral del Go-
bierno de Madrid en las condiciones
laborales de 500 personas del co-
lectivo investigador en formación**

- | | | | | |
|--------|--|---------|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none">· Galdera Casanova Alonso jaunak aurkeztu du eta Lan eta Justiziako sailburuak erantzun dio. | | | <ul style="list-style-type: none">· Presenta la pregunta el señor Casanova Alonso, que es respondido por la consejera de Trabajo y Justicia. |
| 88 or. | <i>Adierazpen instituzionala, Europako Justizia Auzitegiak Mendebaldeko Saharari buruz emandako epaia betetzearen gaian</i> | Pág. 88 | | <i>Declaración institucional sobre el cumplimiento de la sentencia del Tribunal de Justicia Europeo sobre el Sahara Occidental</i> |
| | <ul style="list-style-type: none">· Lehendakariak adierazpena irakurri du. | | | <ul style="list-style-type: none">· La presidenta da lectura a la declaración. |
| 89 or. | <i>Amaiera eman zaio bilkurari.</i> | Pág. 89 | | <i>Se levanta la sesión.</i> |



*Goizeko bederatzia eta hogeita hamai-
kan hasi da bilkura.*

LEHENDAKARIAK (Tejeria Otermin): Egun on guztioi. Osoko bilkurari hasiera emango diot.

Jakin, aurrez, seigarren puntua zortzigarren tokian eztabaidatuko dela eta zortzigarrena seigarren tokian.

Gai-zerrendako lehenengo puntua: "Galdera, Luis Javier Tellería Orriols Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuari egina, elikagaien planifikazio estratetikokoari buruz".

Tellería jauna, zurea da hitza.

TELLERÍA ORRIOLS jaunak: Mahaiburua anderea, lehendakari, sailburuok, legebiltzarkideok, egun on guztioi. Buenos días a todos.

Badirudi Europar Batasunak lehentasuna eman diola elikadura alorreko lanari eta elikaduraren etorkizunari. Lehentasun-politika hori zehazteko, duela gutxi Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutuak Food4future deialdia irabazi duen partzuergoa aukeratu du. Partzuergo horrek berrikuntzan aitzindariak diren ekimenak garatuko ditu elikagaien kate iraunkorren eraikitzea sustatzeko.

Este consorcio, formado por cincuenta empresas, universidades y centros de investigación de primer orden, representa un amplio abanico de expertos de países europeos y asociados, estando incorporados entre ellos el centro tecnológico vasco AZTI y la empresa vasca Angulas de Aguinaga. Eso significa, por un lado, que tenemos empresas y centros de conocimiento suficiente como para incorporarse al liderazgo de la alimentación europea, y, por otro, que dispondremos del privilegio de poder seguir muy de cerca las innovaciones y sugerencias que surjan del consorcio premiado.

Horrekin batera, sailburua anderea, duela gutxi batzordean azaldu zenigun legegintzaldi honetarako zure sailaren planifikazioa. Hainbat plan eta programa egitea proposatu duzu. Horien artean, gastroelikaduraren plan estrategikoa.

Esa propuesta novedosa se une al hecho de haber incluido dentro de la estrategia RIS3, y en su ámbito de prioridad de biociencias, a la alimentación como un nicho de oportunidad. Todo ello viene a indicar que la alimentación, y todo lo que conlleva, se encuentra entre las prioridades de su departamento para esta legislatura.

Gure taldean ere uste dugu lehentasun politikoa eman behar zaiola elikagaigintzari, hasi lehen ekoizpenetik, transformaziotik pasatu edo ez, eta merkaturatzeko kateetara arte. Lehentasun politikoa eman behar diogu elikadurari osasunerako balio gisa uler-

Se abre la sesión a las nueve horas y treinta y un minutos.

La **PRESIDENTA** (Tejeria Otermin): Buenos días a todos y todas. Damos comienzo a la sesión.

Sepan ustedes que el punto sexto se debatirá en lugar del punto octavo, mientras que el octavo se debatirá en sexto lugar.

Primer punto del orden del día: "Pregunta formulada por don Luis Javier Tellería Orriols, parlamentario del grupo Nacionalistas Vascos, a la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, relativa a la planificación estratégica alimentaria".

Señor Tellería, tiene la palabra.

El Sr. **TELLERÍA ORRIOLS**: Señora presidenta de la Mesa, señor lehendakari, señoras y señores consejeros, señorías, buenos días a todos y todas. Egun on guztioi.

Todo apunta a que las prioridades de la Unión Europea son el ámbito y el futuro de la alimentación. Para definir esta política de prioridades, el Instituto Europeo de Innovación y Tecnología ha seleccionado recientemente el consorcio vencedor de la convocatoria Food4future. Este consorcio desarrollará iniciativas pioneras en innovación para promover la construcción de cadenas alimentarias sostenibles.

Partzuergo hori berrogeita hamar enpresaz, unibertsitatez eta punta-puntako ikerketa-zentroz osatuta dago, eta Europako herrialdeetako eta bazkide-tuetako adituen sorta zabala biltzen du; horien artean daude EAEko AZTI teknologia-zentroa eta Angulas Aguinaga euskal enpresa. Horrek esan nahi du, bate-tik, Europako elikadura-arloko lidergoan sartzeko moduko jakintza-maila duten enpresa eta zentroak ditugula, eta, bestetik, saritutako partzuergotik sortzen diren iradokizun eta berrikuntzak gertu-gertutik jarraitzeko pribilegioa izango dugula.

Asimismo, señora consejera, hace poco nos explicó en comisión la planificación de su departamento para esta legislatura. Ha propuesto el desarrollo de diversos planes y programas, entre los cuales se encuentra el plan estratégico de la gastroalimentación.

Proposamen berritzaile horrekin batera, elikadura aukera-nitxozat txertatu da RIS3 estrategiaren eta estrategia horretako biozientzien lehentasunezko arloaren barruan. Horrek guztiak zera adierazten du, elikadura eta elikadurak dakarren guztia zure sailaren lehentasunetako bat direla legegintzaldi honetarako.

En nuestro grupo creemos que la producción de alimentos merece prioridad política, desde la primera producción hasta llegar a las cadenas de comercialización, pasando o no por la transformación. Hemos de conceder prioridad política a la alimentación, en-

tuta, baita ikerkuntza eta garapenerako iturri gisa zein teknologia berriak garatzeko merkatu hobea gisa.

Y, aunque la alimentación siempre ha sido importante (creo recordar que fue García Márquez quien dijo que la comida es tan importante como el amor, solo que este último no alimenta), ha pasado a tener una relevancia fundamental, tanto desde la perspectiva de los conocimientos vinculados a la producción de alimentos (tanto desde la producción primaria como desde las sucesivas transformaciones) como desde el nuevo conocimiento vinculado a los nuevos alimentos, y sobre todo los nuevos conocimientos vinculados a la relación entre salud y alimentación. Por todo ello, la Unión Europea ha colocado en el frontispicio de sus prioridades estratégicas para el próximo quinquenio a la alimentación.

Considerando todo lo señalado, señora consejera, ¿en qué plazo tiene previsto su departamento presentar el plan estratégico gastroalimentario ya comentado? Y, considerando la presencia de empresas vascas, ¿en qué medida ese futuro plan estará alineado con los planes que pueda elaborar la UE a través del consorcio ganador de la convocatoria Food for Future?

Eskerrik asko. Muchas gracias.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Tellería jauna.

Erantzuteko, Jaurilaritzaren ordezkaria den Tapia andereak dauka hitza.

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURERAKO SAILBURUAK (Tapia Otaegui): Eskerrik asko, presidente anderea. Lehendakari, sailburu eta legebiltzarkideok, egun on guztiok.

Tellería jauna, aipatzen zenuen bezala, gastroelikadurarako plana aurreikusita dugu gure plangintzan, eta, noski, nazioarteko partzuergo horren eginkizunekin erabat lerrotatuta dago. Gure agendan hainbat proiektu ditugu, baina proiektu horiek, noski, elikadurari lotuta daudenez, guztiak bat egin behar dute eta lerrotatuta egon behar dute. Hau aurreko legealditik datorren zerbait da.

Aipatzen zenuen RIS3aren strategiaren barruan elikadura garrantzitsu bezala ipini dugula, eta hori da, azken finean, aktibitate ekonomikoa eta enplegua ere sortzen duelako, eta, zentzu horretan, gure gizarteak oso kontziente izan behar du hori horrela dela.

Gaur egun, elikadura-sektorea orokorrean hazten baldin badugu, barne-produktu gordinaren % 10 baino gehiago da, ia 100.000 pertsona dira bertan lan egiten dutenak. Hasten baldin bagara lehen sektoretik, hau da, produkzio-mundutik, eta gastronomian bukatzen baldin badugu –azken finean, gure errestrukturazioan–, izugarritzko zeregina eta garrantzia du.

tendiéndola como valor para la salud, así como fuente de innovación y desarrollo, incluso como un mercado mejor para el desarrollo de nuevas tecnologías.

Eta, elikadura beti garrantzitsua izan den arren (oker ez banago García Márquezek esan zuen janaria maitasuna bezain garrantzitsua dela, baina hark bakarrik ez duela elikatzen), funtsezko garrantzia izatera iritsi da orain, dela elikagaigintzarekin lotutako jakintzaren ikuspegitik begiratuta (lehen mailako produkzioa nahiz ondoz ondoko eraldaketak), dela elikagai berriekin lotutako jakintzarengatik eta, bereziki, osasunaren eta elikaduraren arteko loturaren inguruan sortu diren jakintza berrien ondorioz. Horregatik guztiagatik, Europar Batasunak datozen bosturtekorako lehentasun estrategikoen gailurrean ipini du elikadura.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, sailburu andrea, zer epetarako aurreikusi du zure sailak lehen esandako gastroelikaduraren plan estrategikoa aurkeztea? Eta, euskal enpresen presentziari dagokionez, etorkizuneko plan hori zenbateraino etorriko da bat EBK Food for Future deialdiko partzuergo irabazlearen bitartez egin ditzakeen planekin?

Muchas gracias. Eskerrik asko.

La **PRESIDENTA:** Gracias, señor Tellería.

En turno de réplica, tiene la palabra la señora Tapia, representante del Gobierno.

La **CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS** (Tapia Otaegui): Gracias, señora presidenta. Señor lehendakari, señora consejera, señorías, buenos días a todos y todas.

Como mencionaba usted, señor Tellería, hemos previsto el plan gastroalimentario en nuestra planificación, y, como no podía ser de otra manera, se encuentra alineado con los cometidos del consorcio internacional. Tenemos varios proyectos en nuestra agenda, y, considerando el carácter alimentario de todos ellos, es necesario que estén alineados. Esto es algo que viene de la legislatura anterior.

Decía usted que hemos introducido la alimentación como tema principal dentro de la estrategia RIS3. Al fin y al cabo, la alimentación genera actividad económica e incluso empleo y, en ese sentido, nuestra sociedad debe ser muy consciente de ello.

Considerando el sector de la alimentación en su totalidad, hoy en día representa más del 10 % del producto interior bruto, lo cual se traduce en casi 100.000 personas que trabajan en dicho sector. Si partimos del sector primario –es decir, del mundo de la producción– hasta llegar a la gastronomía –o dicho de otra manera, hasta nuestra restauración–, cuenta con un cometido y una importancia considerables.



Si observamos en Europa, el 62 % de los consumidores europeos además nos dicen que están dispuestos a abonar un poquito más por que esos productos sean de cercanía y sostenibles. Y además tenemos que considerar el impacto ambiental que supone toda la actividad de la agroalimentación.

Si además observamos que en Europa cada vez más la población está envejecida, estancada, necesita o está demandando nuevos productos y nuevas formas de hacer más sostenibles, más saludables en estos momentos, y que toda la trama urbana supone que las demandas que estamos realizando en estos momentos son diferentes, debemos considerarlas como algo realmente novedoso y que genera a veces dudas, pero desde luego grandes oportunidades.

En Euskadi estamos comprometidos y estamos dispuestos además a trabajar con todo el sector agroalimentario, con toda la cadena de valor, de forma que todo lo que produzcamos, distribuyamos y consumamos todas las personas que vivimos en Euskadi sea de la mejor manera posible, lo más sostenible posible.

Además, en el marco europeo, como usted decía, en la iniciativa EIT Food hemos conseguido que dos intervinientes (un centro tecnológico, AZTI, y una empresa, Angulas de Aguinaga) estén trabajando de forma –vamos a decir– muy integrada y muy participativa.

En ese EIT se van a trabajar cuatro ámbitos: la comunicación, la innovación, el emprendimiento y la formación. Y el siguiente paso desde el departamento va a ser considerar el plan gastroalimentario como algo que tenemos que poner en marcha en un plazo breve de tiempo, incrementando la producción de alimentos en Euskadi, produciendo alimentos de calidad para un envejecimiento saludable –dado que en Euskadi la población está envejeciendo a una gran velocidad–, desarrollar además un territorio sostenible, produciendo productos sostenibles y saludables, y estructurando y aunando diferentes iniciativas que se están poniendo en marcha en Euskadi.

El 3 de abril, dado que ya tenemos una primera aproximación de ese plan, vamos a tener un encuentro con todo el sector, desde la parte más de producción hasta el último, de gastronomía, para incorporar los *inputs*, las distintas observaciones que se hagan por parte de todos los agentes de la cadena de valor, de tal forma que tengamos ya un plan estructurado y lo podamos presentar antes de este mismo verano de 2017.

Eskerrik asko.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Tapia anderea.

Gai-zerrendako bigarren puntua: "Galdera, Iker Casanova Alonso EH Bildu taldeko legebiltzarkideak lehendakariari egina, Jaurlaritzaren goi-karguei buruz".

Europari erreparatuz gero, kontsumitzaileen % 62k esaten digute, gainera, diru gehixeago ordaintzeko prest daudela produktu horiek gertukoak eta jasangarriak izatearen truke. Eta, gainera, nekazaritzako elikagaien jarduerak ingurumenean eragiten duen inpaktua ere aintzat hartu behar da.

Halaber, kontuan hartzen badugu Europako biztanleria gero eta zahartuagoa, geldoagoa dela, eta produktu berriak eta egiteko modu jasangarriagoak, osasungarriagoak behar dituela une honetan, hiribilbe osoak egun egiten ari garen eskaerak desberdinak izatea eragiten duela, gauza erabat berritzaile behar ditugu. Eta, batzuetan, zalantza eragiten dute, baina aukera handiak eskaini ere bai.

Euskadin nekazaritzako elikagaien sektorearekin konprometitu gaude, eta sektore horrekin lan egiteko prest, balio-kate osoarekin; hartara, Euskadin bizi garen guztiok produzitu, banatu eta kontsumitzen dugun guztia ahalik eta onena izango da, ahalik eta jasangarriena.

Horretaz gain, Europako esparruan, esan duzenez, EIT Food ekimenean lortu dugu bi parte-hartzaile (AZTI teknologia-zentroa eta Angulas Aguinaga enpresa) modu oso integratua –nolabait esatearren– eta parte-hartzailean lanean aritzea.

EIT horretan, lau arlo landuko dira: komunikazioa, berrikuntza, ekintzailetza eta prestakuntza. Eta Sailaren hurrengo urratsa zera izango da, gastroelika-duraren plana lehenbailehen abiarazi behar dugula pentsatzea; horretarako, Euskadin elikagai gehiago produzitu behar ditugu, kalitatezko elikagaiak ekoiztu behar ditugu modu osasungarrian zahartzeko –izan ere, Euskadin biztanleria oso azkar ari da zahartzen–, eta, gainera, lurralde jasangarria garatzeko, produktu jasangarri eta osasungarriak produzituta eta Euskadin martxan jartzen ari diren ekimenak egituratu eta uzartuta.

Planaren lehen hurbilketa bat badugunez, apirilaren 3an sektore osoarekin bilera egingo dugu, hau da, produkzioarekin zein gastronomiarekin lotura dutenekin, balio-kateko agente guztiak proposatutako *inputak* eta ekarpenak txertatzeko; horrela, bada, plana egituratu ahal izango dugu eta 2017ko uda baino lehen aurkeztu ahal izango dugu.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA:** Gracias, señora Tapia.

Punto segundo del orden del día: "Pregunta formulada por don Iker Casanova Alonso, parlamentario del grupo EH Bildu, al lehendakari, relativa a los altos cargos del Gobierno".



Casanova jauna, zurea da hitza.

CASANOVA ALONSO jaunak: Bai, egun on.

Gaur, martxoak 3, gora langileon borroka!

Aurrekontu-proiektua ikusi dugunean, konturatu gara Jaurlaritzak goi-kargu eta aholkularien egitura handitu duela. Zehazki, goi-karguak 147 izatetik 164 izatera pasatzen dira. Aholkularien kasuan igoera are handiagoa da: 72tik 92ra. Guztira, 37 postu gehiago Jaurlaritzaren egiturari, 2,4 milioi euroko gainkostua-rekin.

Horregatik uste dugu momentu honetan, eta guztioi gerrikoa estutzea eskatzen zaigunean Gobernutik, ondorengo galdera egitea logikoa dela: uste duzu, lehendakari jauna, goi-kargu eta aholkularien kopurua modu horretan igotzea bidezkoa dela egungo egoera ekonomikoan, kontuan hartuta Jaurlaritzak muga ekonomikoen aitzakia erabiltzen duela sistematikoki hainbat aldarrikapen soziali ezezkia emateko?

Eskerrik asko.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Casanova jauna.

Erantzuteko, lehendakari jauna, zurea da hitza...

Casanova jauna, mesedez, eraman zurekin. Bakoitzak bere trasteak eraman ditzala, mesedez. *(Berbotsa)* Eraman, mesedez. Mesedez. Besteekiko errespetuagatik, besterik ez da. Uste dut eduki duela zurekin.

Lehendakari jauna, zurea da hitza.

JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAK (Urkullu Renteria): Eskerrik asko, legebiltzarburu anderea. Eta, aldi berean, egun on legebiltzarkide guztioi eta sailburui, eta jaun-andre guztioi ere egun on.

Casanova jauna, bai, Gobernu berriak 11 sail ditu 11.000 milioi euro kudeatzeko. Eta proportzio egokia iruditzen zait, horregatik erabaki dugu. Egia da aurreko Gobernuak 8 sail besterik ez zuela izan, baina esperientziak esan digu egitura berri honekin hobeto beteko dugula onartu dugun programa.

Ondo dakizunez, azkeneko 30 urte hauetan beti ezagutu ditugu koalizio-gobernuak Euskadin, eta koalizio-gobernuak izan zein bakarkako gobernuak izan, oraingo Gobernuak da egitura txikiena duena, hau da, goi-kargu gutxiago duena koalizio-gobernu bat izanik.

Señor Casanova, tiene la palabra.

El Sr. **CASANOVA ALONSO**: Sí, buenos días.

Hoy, 3 de marzo, viva la lucha de las personas trabajadoras!

Al ver el proyecto presupuestario, nos hemos dado cuenta de que el Gobierno ha aumentado la estructura de altos cargos y asesores. Exactamente, los altos cargos pasan de ser 147 a ser 164. En el caso de los asesores, el aumento es incluso mayor, pasando de 72 a 92. En total, 37 puestos más en la estructura del Gobierno, con un coste adicional de 2,4 millones de euros.

Por eso creemos que, en estos momentos, y cuando desde el Gobierno nos piden al conjunto de la ciudadanía que nos apretemos el cinturón, es lógico que hagamos la siguiente pregunta: ¿señor lehendakari, cree usted que es adecuado aumentar de esta manera el número de altos cargos y asesores en la actual situación económica, teniendo en cuenta que el Gobierno utiliza el pretexto de los límites económicos para rechazar sistemáticamente las distintas reivindicaciones sociales?

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA**: Gracias, señor Casanova.

En turno de réplica, tiene la palabra el señor lehendakari.

Señor Casanova, por favor, lléveselo con usted. Que cada cual se lleve sus enseres, por favor. *(Murmullos)* Lléveselo, por favor. Por favor. Es una cuestión de respeto hacia los demás, simplemente. Y creo que yo lo he tenido con usted.

Señor lehendakari, tiene la palabra.

El **LEHENDAKARI DEL GOBIERNO** (Urkullu Renteria): Gracias, señora presidenta del parlamento. Y, al mismo tiempo, buenos días a todos y todas, señorías, consejeros y consejeras, y a todos los señores y señoras, buenos días.

Señor Casanova, efectivamente, el nuevo Gobierno cuenta con 11 departamentos para gestionar un total de 11.000 millones de euros. Y me parece una proporción adecuada, por eso lo hemos decidido. Es cierto que el anterior Gobierno tuvo únicamente 8 departamentos, pero la experiencia nos ha demostrado que con esta nueva estructura vamos a cumplir mejor el programa aprobado.

Como usted bien sabe, durante estos últimos 30 años siempre hemos conocido gobiernos de coalición en Euskadi, y tanto siendo gobiernos de coalición, como siendo gobiernos en solitario, es el Gobierno actual el que cuenta con la estructura de menor

Azkeneko 30 urte hauetan, gobernu guztiek 250 goikargu baino gehiago izan dituzte beti, batek izan ezik, eta hori aurreko Gobernuaren izan da.

Nik 250 pertsona hauen lana eta konpromisoa azpimarratu nahi dut. Esan bezala, 11.000 milioi euro kudeatu behar dituzte. Guztira 70.000 pertsonaren lana zuzendu behar dute. Inoiz eduki dugun baino eskumen gehiago dugu, inoiz baino gardentasun gehiago, inoiz baino erantzukizun gehiago gizartearen aurrean eta Legebiltzar honen aurrean ere bai. Beraz, bidezkoa iruditzen zaidana da 250 pertsona horien lana eta konpromisoa azpimarratzea.

Eskerrik asko.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, lehendakari jauna.

Casanova jauna, zurea da hitza.

CASANOVA ALONSO jaunak: Señor Urkullu, no trate de hacernos comulgar con ruedas de molino. Ha subido treinta y siete altos cargos en el organigrama de su Gobierno. Y además usted en una de las primeras entrevistas que concedió tras crear el Gobierno dijo que la aparición de tres nuevas consejerías no iba a suponer una proliferación de altos cargos, porque, efectivamente –al nivel inmediatamente inferior a consejerías–, viceconsejerías y direcciones ya existían, aunque estuvieran sumidas en macroconsejerías.

Por tanto, no ha cumplido lo que dijo, ha motivado una inflación de la estructura orgánica del Gobierno, y lo ha hecho además por una simple razón: por las necesidades partidistas de su acuerdo con el Partido Socialista.

La estructura de su Gobierno está diseñada para responder no a las necesidades de las personas de este país, sino a las necesidades de su acuerdo de gobierno. Por eso ha creado un Departamento de Trabajo sin Lanbide, por eso ha creado un Departamento de Ordenación del Territorio sin infraestructuras, y por eso ha creado un Departamento de Comercio y Turismo sin presupuesto. Y, como al Partido Socialista solo le va a corresponder gestionar el 4 % del presupuesto de este país, en lo que sí ha sido generoso es en la entrega de altos cargos. Han utilizado los altos cargos no para cumplir una función al servicio de la ciudadanía, sino para cumplir las necesidades de su acuerdo.

A usted le preguntaban cuántos pelos se ha dejado en la gatera el PNV en el pacto con el PSE, y respondía: "Yo diría que ninguno". Yo le formulo la pregunta de otra manera: ¿Cuántos cargos se ha dejado el PNV en la gatera? Ninguno. Es decir, ustedes mantienen los altos cargos que tenían en la anterior legislatura, y le otorgan al Partido Socialista los de nueva creación.

tamaño, es decir, con el menor número de altos cargos teniendo en cuenta que se trata de un gobierno de coalición. Durante los últimos 30 años, todos los gobiernos han contado con más de 250 altos cargos, todos excepto un gobierno, que es el anterior.

Me gustaría destacar la labor y el compromiso de estas 250 personas. Como acabo de mencionar, han de gestionar un total de 11.000 millones de euros y tienen que liderar el trabajo de 70.000 personas. Tenemos más competencias que las que nunca hemos tenido, más transparencia que nunca, más responsabilidad que nunca ante la sociedad y también ante este Parlamento. Por lo tanto, me parece justo destacar el trabajo y el compromiso de estas 250 personas.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA:** Gracias, señor lehendakari.

Señor Casanova, tiene la palabra.

El Sr. **CASANOVA ALONSO:** Urkullu jauna, ez errotarririk irentsarazi guri. Hogeita hamazazpi goikargudun gehiago jarri dituzu Jaurlaritzaren organigraman. Eta, gainera, Jaurlaritza eratu eta handik gutxira emandako elkarrizketa batean esan zenuen hiru sail berri sortzeak ez zituela goikargudunak ugarituko, sailburuordetzak eta zuzendaritzak –sailen segidako azpiko mailan– hor zeudelako, nahiz eta makrosailen barruan txertatuta egon.

Hortaz, ez duzu esandakoa bete, Jaurlaritzaren egitura organikoa puztu egin duzu, eta arrazoi simple batengatik egin duzu, gainera: Alderdi Sozialistarekin egindako akordioaren alderdikieriazko premiengatik.

Zure Jaurlaritzaren egitura ez dago herri hone-tako jendearen premiei erantzuteko diseinatuta, zure gobernu-akordioaren premiei erantzuteko baizik. Horregatik, Lan eta Justizia Saila sortu duzu Lanbide gabe; horregatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila sortu duzu azpiegiturarik gabe; eta, horregatik, Merkataritza eta Turismo Saila sortu duzu aurrekonturik gabe. Eta Alderdi Sozialistak herri hone-tako aurrekontuaren % 4 baino ez duenez kudeatuko, horretan ez, baina goikargudunak ematen behintzat izan zara eskuzabala. Goi-kargudunak ez dituzue erabili herritarrei zuzendutako eginkizun bat betetzeko, baizik eta zuen akordioaren premiak asetzeko.

Galdetu zizutenean EAJK zenbat auziri uko egin behar izan zien PSEekin akordioa egitean, zuk honako hau erantzun zenuen: "Bat bera ere ez, esango nuke nik". Nik orain beste modu batera egingo dizut galdera: Zenbat kargu galdu ditu EAJK katu-zuloan? Bat ere ez. Alegia, zuek aurreko legegintzaldian zenituzten goikargudunen kopuruari eutsi diozue, eta Alderdi Sozialistari berriak eman dizkiozue.

Con la que está cayendo a raíz de la crisis económica, de la proliferación de casos de corrupción, con el descrédito de la política, con el descrédito de lo público y de lo colectivo en que estamos viviendo en los últimos años, hay que ser extremadamente cuidadoso con estas cuestiones, y nos parece un auténtico ejercicio de irresponsabilidad jugar de esta manera, en un momento en el que a la gente se le está pidiendo de forma permanente que se apriete el cinturón, y se le está respondiendo en términos presupuestarios que no hay dinero para atender necesidades muchísimos más acuciantes que la creación de nuevos altos cargos.

Por tanto, me parece que no es demagogia, sino responsabilidad, denunciar este tipo de mala praxis política, que constituye todo un antiejempro, un contraejemplo absolutamente antipedagógico, porque hay algunos, muchos, que quieren utilizar todo esto en beneficio propio, sobre todo desde la derecha, para desprestigiar todo lo público y para desprestigiar todo lo colectivo, para impulsar la privatización de todo, incluso de la toma de decisiones, y, por tanto, aquellos que defendemos lo público y lo colectivo tenemos que ser extremadamente cuidadosos y predicar con el ejemplo.

La estructura de este Gobierno no responde a las necesidades de las personas; responde a las necesidades de su pacto. Esta proliferación de altos cargos es la factura que tiene que pagar al Partido Socialista; pero las facturas del Partido Nacionalista, por favor, que se las paguen ustedes y no se las remitan a la ciudadanía vía presupuestos, que bastante tienen los ciudadanos y ciudadanas con pagar sus propias facturas.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Casanova jauna.

Lehendakari jauna, zurea da hitza.

JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAK (Urkullu Renteria): Eskerrik asko, legebiltzarburu anderea.

Señor Casanova, después del *totum revolutum* vayamos al grano. Eta benetan kezkatu egin nauena da sinesgarritasunaz egin duzun aipamena.

Begira, langile publiko guztien lana aitortzen dugun bezala, goi-karguen lana ere errespetatzea eta onartzea dagokigu. Legebiltzar honek lan hori jarraitzeko eta kontrolatzeko aukera guztiak irekita ditu, Legebiltzarrari dagokio jarraipena egitea. Baina ez dudana ulertzen, eta ezta onartzen ere, da gai honen aurrean zuk erabili duzun demagogia. Zuk egin duzun demagogia, Casanova jauna.

Goi-karguek, beraien lana egiten dute, konpromiso osoarekin, gardentasun osoarekin, profesionalta-

Azken urteotan krisialdi ekonomikoa eragiten ari den ondorioak aintzat hartuta, gero eta ustelkeria-kasu gehiago agertzen ari direla kontuan izanik, politika izen ona galtzen ari dela jakinda, eta gauza publikoak eta kolektiboak ospe ona galtzen ari direla jakinda, kontu oso handiz ibili behar da horrelako gaiekin, eta gure ustez arduragabekeria galanta da horrela jokatzeko; izan ere, herritarrei gerrikoa estutzeko eskatzen baitzaie, eta aurrekontuan dirurik ez dagoela erantzun, goi-kargu berriak sortzea baino askoz ere premia larriagoetarako.

Hori dela eta, nire ustez ez da demagogia horrelako praxi politiko desegokiak salatzea, erantzukizuna baizik, egin behar ez denaren adibide baita, adibide erabat antipedagogikoa, zenbait jendek, jende askok norberaren mesederako baliatu nahi baitu hau guztia, batik bat, eskuinak, gauza publiko guztiei eta gauza kolektibo guztiei izen ona galaraztearren, gauza guztien pribatizazioa bultzatzeko, baita erabakiak hartzeko ere; eta, hortaz, gauza publikoak eta kolektiboak defendatzen ditugunok kontu oso handiz jokatu behar dugu, eta esandakoa bete.

Jaurlaritzaren egitura ez dator bat pertsonen premiekin; zuen itunaren premiekin dator bat. Goi-kargudunen ugaltze hori Alderdi Sozialistari ordaindu beharreko faktura da; baina ordain itzazue zuek, arren, Alderdi Jeltzalearen fakturak eta ez ordainarazi herritarrei aurrekontuen bitartez, nahikoa baitute herri-tarrek euren fakturak ordaintzearekin.

La **PRESIDENTA:** Gracias, señor Casanova.

Señor lehendakari, tiene la palabra.

El **LEHENDAKARI DEL GOBIERNO** (Urkullu Renteria): Gracias, señora presidenta del parlamento.

Casanova jauna, *totum revolutum* horren ondoren, gatozen harira. Y lo que de verdad me ha preocupado es la mención que ha efectuado sobre la credibilidad.

Mire, tal y como reconocemos el trabajo de todas las personas trabajadoras públicas, nos corresponde también el reconocimiento y respeto del trabajo de los altos cargos. Este parlamento tiene abiertas todas las posibilidades de hacer un seguimiento y un control sobre este trabajo, corresponde al Parlamento hacer el seguimiento. Pero lo que yo no entiendo, y lo que tampoco puedo aceptar es la demagogia que ha empleado en este tema. Su demagogia, señor Casanova.

Los altos cargos cumplen su trabajo, con total compromiso, con total transparencia, con profesionali-



sunarekin, ordurik gabe eta kontrol publiko guztiekiko erantzukizun osoa gordez, Casanova jauna. Berrio diot: errespetua eta onarpena merezi dute, langile publiko guztien mailan gutxienez.

Egia da 2.400.000 euro gehiago gastatu behar ditugula, baina egia osoa esan, Casanova jauna. Gobernuak guztira 126 milioi euro gehiago gastatuko ditu aurren, eta aurrekontuan lehentasunezko zerbitzu publiko guztiek diru gehiago jasoko dute, agerpenetan eta adierazpenetan adierazi den bezala.

Inoiz baino eskumen gehiago eta inoiz baino aurrekontu handiagoa. Erronka hauei erantzuteko, inoiz ezagutu dugun bigarren egiturarik txikiena osatu dugu.

El Gobierno anterior fue, insisto, el de menor estructura en treinta años. Ahora hemos decidido, conscientemente, conformar un gobierno con once departamentos, adecuado a los retos y necesidades que afrontamos. Es el segundo menor, con menos cargos públicos, en treinta años.

Hemos adquirido el compromiso de dirigir más personal público, gestionar más presupuesto, y lo haremos con transparencia y compromiso, trabajando en equipo y con eficacia.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, lehendakari jauna.

Gai-zerrendako hirugarren puntua: "Galdera, Lander Martínez Hierro Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak lehendakariari egina, eratu berria den Eusko Jaurlaritzako goi-karguen kopuruari buruz".

Zabala anderea, zurea da hitza.

ZABALA ARTANO andreak: Egun on guztioi. Eskerrik asko.

En un momento en el que, según su consejero de Economía, los presupuestos tendrán que ser particularmente ajustados y sin holgura, en el que su consejero de Vivienda dice no contar con los recursos suficientes para hacer las políticas que querría, en que la RGI no se incrementa lo que debe, excusados en la sostenibilidad del sistema, Urkullu jauna, ¿cómo justifica usted que su Gobierno sea el que más altos cargos ha tenido en los últimos seis años?

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Zabala anderea.

Lehendakari jauna, zurea da hitza.

JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAK (Urkullu Renteria): Eskerrik asko, legebiltzarburu anderea.

Señora Zabala, el Gobierno que más altos cargos ha tenido en los últimos seis años no. El Go-

dad, sin horarios y cumpliendo con toda responsabilidad hacia todos los controles públicos, señor Casanova. Repito: merecen respeto y reconocimiento, por lo menos al nivel de todas las personas trabajadoras públicas.

Es cierto que la factura aumentará en 2.400.000 euros, pero diga usted toda la verdad, señor Casanova. El Gobierno ampliará su gasto en 126 millones de euros, y todos los servicios públicos prioritarios tendrán incrementos en sus partidas presupuestarias, tal y como afirmamos en nuestras comparencias y declaraciones.

Más competencias que nunca, y un presupuesto mayor que nunca. Y para responder a todos estos retos, la segunda estructura más escueta jamás conocida.

Berrio diot, aurreko Jaurlaritza izan zen hogeita hamar urtean egiturarik txikiena izan duena. Orain, hamaika saileko Jaurlaritza eratzea erabaki dugu, nahita, aurre egin beharreko erronka eta premietara egokituta. Hogeita hamar urtean bigarren txikiena da, kargu publiko gutxiago dituela.

Langile publiko gehiago zuzentzeko konpromisoa hartu dugu, aurrekontu gehiago kudeatzeko konpromisoa, eta gardentasunez eta konpromisoz egingo dugu, taldean lan eginez, eraginkortasunez.

La **PRESIDENTA:** Gracias, señor lehendakari.

Tercer punto del orden del día: "Pregunta formulada por don Lander Martínez Hierro, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos, al lehendakari, relativa al número de altos cargos del recién constituido Gobierno Vasco".

Señora Zabala, tiene la palabra.

La Sra. **ZABALA ARTANO:** Buenos días a todos y todas. Muchas gracias.

Ekonomiako sailburuaren arabera aurrekontuek bereziki doituak eta lasaierarik gabeak izan beharko duten honetan, eta Etxebizitzako sailburuaren hitzetan berak nahi litzuzkeen politikak egiteko behar beste baliabide ez den honetan, sistemaren jasangarritasunaren aitzakiapean diru-sarrerak bermatzeko errenta behar adina handitzen ez den garaian, Urkullu jauna, nola justifikatzen duzu zure Gobernuaren izatea azken sei urteotan goi-kargudun gehien izan dituen?

La **PRESIDENTA:** Gracias, señora Zabala.

Señor lehendakari, tiene la palabra.

El **LEHENDAKARI DEL GOBIERNO** (Urkullu Renteria): Gracias, señora presidenta del Parlamento.

Zabala andrea, ez da azken sei urtean goi-kargudun gehien izan dituen gobernuaren aurreko go-



bierno anterior fue el que menos cargos ha tenido en treinta años, y el actual es el segundo menor. El segundo menor.

Es cierto que los presupuestos son ajustados, pero lo son especialmente para los gastos de estructura interna. El presupuesto ha crecido un 1,2 %, y el gasto en personal directivo público un 0,02 %.

La prioridad son las políticas sociales, y están garantizadas en los presupuestos, como he dicho en la primera intervención, tal y como se ha explicado en la exposición del proyecto de presupuestos.

Los servicios esenciales cuentan con más recursos económicos que el año anterior. La pasada legislatura hicimos un esfuerzo ímprobo de contención y de gestión, y ahora hemos definido la estructura más adecuada para gestionar el programa, para gestionar y para afrontar los retos de país que tenemos.

Hemos definido una estructura con 250 cargos para dirigir y coordinar once departamentos, con 11.000 millones de presupuesto y 70.000 trabajadoras y trabajadores. Es la estructura necesaria, y le diré que, en treinta años (en treinta años), el Gobierno anterior y este han tenido el menor número de directivos públicos. Es el Gobierno con mayor presupuesto, el Gobierno con la planificación más completa.

Necesitamos esta estructura para responder a todas las necesidades, incluidas las 13.552 iniciativas requeridas por este Parlamento al Gobierno durante la pasada legislatura: comparencias, 615; trasposición de normativa, 207; interpellaciones, 580; preguntas, 7.202; proposiciones de ley o no de ley, 956; solicitudes de información, 3.902. Total, 13.552 iniciativas requeridas por este Parlamento en la pasada legislatura. Y en esta, en menos de cien días, llevamos ya 659 iniciativas requeridas al Gobierno.

Insisto, este es el Gobierno con más presupuestos, más compromisos a gestionar, y más iniciativas a cumplimentar ante este Parlamento. Por lo tanto, la estructura es necesaria, adecuada y ajustada.

Eskerrik asko.

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, lehendakari jauna.

Zabala anderea, zurea da hitza.

ZABALA ARTANO andreak: Lehendakari jauna, entzuten dizut, arretaz entzuten dizut eta saiatzen naiz ulertzen, baina ezinezkoa zait.

Hoy no he venido aquí con una cuestión para tirarle de las orejas. He querido hacerles conscientes de la dimensión de sus decisiones. Sus decisiones.

A veces su consejero de Economía, su Gobierno, se esfuerzan en intentar hacernos ver que todo

bernuak izan zituen azken hogeita hamar urteetan goikargudun gutxien, eta oraingoa bigarren txikiena da. Bigarren txikiena.

Egia da aurrekontuak estuak direla; baina bereziki estuak barne-egiturako gastuei dagokienez. Aurrekontua % 1,2 handitu da, eta zuzendaritzako langile publikoen gastua % 0,02.

Gizarte-politikak dira lehentasuna, eta aurrekontuekin bermatuta daude, nire lehenengo mintzaldian esan dudanez eta aurrekontu-proiektuaren azalpenean adierazi dudana moduan.

Funtsezko zerbitzuetarako iaiz baino diru gehiago dago. Aurreko legegintzaldian sekulako ahalegina egin genuen gastuari eusten eta kudeaketan, eta, orain, programa kudeatzeko egiturarik egokiena zehaztu dugu, herri gisa ditugun erronkak kudeatzeko eta horiei aurre egiteko.

250 kargu dituen egitura zehaztu dugu hamaika sail zuzendu eta koordinatzeko, 11.000 milioiko aurrekontua eta 70.000 langile dituela. Behar den egitura da, eta zera esango dizut, hogeita hamar urtean (hogeita hamar urtean), aurreko gobernua eta oraingoak izan dituztela zuzendari publiko gutxien. Aurrekontu handiena duen gobernu da, plangintza osatuen duen gobernu.

Egitura hau behar dugu premia guztiei erantzuteko, Legebiltzar honek aurreko legegintzaldian Jaurlaritzari eskatutako 13.552 ekimenak barnean hartuta: agerraldiak, 615; araudia ekartzea, 207; interpelazioak, 580; galderak, 7.202; lege-proposamenak edo legez besteko proposamenak, 956; informazio-eskaerak, 3.902. Guztira, Legebiltzar honek aurreko legegintzaldian eskatutako 13.552 ekimen. Eta legegintzaldi honetan, ehun egun baino gutxiago daramagularik, 659 ekimen eskatu dizkiogu jada Jaurlaritzari.

Berritio diot, aurrekontu gehien dituen gobernu da hau, kudeatu beharreko konpromiso gehien dituen, eta Legebiltzar honen aurrean ekimen gehien bete behar dituen. Hortaz, egitura beharrezkoa, egokia eta doitu da.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA:** Gracias, señor lehendakari.

Señora Zabala, tiene la palabra.

La Sra. **ZABALA ARTANO:** Señor lehendakari, yo le escucho, le escucho con atención e intento comprenderle, pero me resulta imposible.

Ez naiz etorri gaur hona gai honekin zuri errieta egiteko asmoz. Zuen erabakien garrantziaz konturaztea nahi nuen. Zeuen erabakiak.

Batzuetan, Ekonomiako sailburuak, zure gobernuak dena erabakita dagoela ikusarazi nahi izaten



está determinado y que no tienen margen para hacer otras cosas. Pero no es cierto, porque sí hay margen, y estas semanas vamos a intentar mostrarlo. Se lo vamos a mostrar con el gasto, señalando que el gasto social para ustedes no ha sido una de sus prioridades. Lo vamos a hacer con la política fiscal, demostrando cómo ustedes no quieren hacer que pague más el que más tiene. Y lo vamos a hacer hoy denunciando que, mientras no encuentran dinero para políticas de vivienda, de educación o salud, o para garantizar un ingreso a los que peor lo están pasando, sí que encuentran ese dinero para aumentar altos cargos y asesores.

Totalean, 164 goi-kargu, 92 asesore. Aurreko Gobernuaren aldean, 37 kontratazio berri; totalean, % 17 gehiago. Esto representa 2.400.000 euros de gasto para el bolsillo de la ciudadanía. Diru hori, 2.400.000 euro, no se gasta en cosas más útiles y necesarias desde un punto de vista social.

Más allá de esas cifras, sí quería hacer una correlación: cada asesor o alto cargo equivale a 105 familias cobrando la RGI durante un mes; cada asesor o alto cargo equivale a la beca de comedor de 91 niños o niñas; cada asesor o alto cargo equivale al copago farmacéutico anual de 928 personas; cada asesor o alto cargo equivale a la factura de la luz de 62 hogares.

Insistitzen dizut, Urkullu jauna: ¿de verdad que un gobierno que dice no tener dinero para prestaciones sociales, para invertir en políticas de vivienda, para hacer frente a las necesidades de la ciudadanía, resulta que sí lo encuentra para aumentar el número de altos cargos? No podemos dejar de recordar que, mientras que el gasto en salud o en educación no ha recuperado los niveles de antes de la crisis, el de asesores y altos cargos es el mayor en los últimos seis años.

Hoy, señor Urkullu, no he venido simplemente a afearle ese incremento, sino que queremos señalarle una cuestión de coherencia irrefutable. En los últimos meses su consejero de Economía decía que aspiraba a contar con el apoyo de nuestro grupo para la propuesta de presupuestos. Le hemos señalado tres requisitos: uno, priorización del gasto social y creación de empleo; dos, una reforma integral de la fiscalidad, y, tres, ejemplo de austeridad. Hoy usted ha echado balones fuera con datos, etcétera, pero son ustedes los que descartan a nuestro partido y a las fuerzas progresistas cuando inflan la contratación de asesores y altos cargos, mientras recaen...

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Zabala anderea.

Lehendakari jauna, zurea da hitza.

Isiltasuna, mesedez.

JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAK (Urkullu Renteria): Eskerrik asko, legebiltzarburu anderea.

